


Errobotik euskal itsasbazterera

Ibilbide guziak eskuragarri Turismo Bulegoetan ►►



MAILA
1

BIZIKI ERRAZ

FAMILIA-IBILALDIAK - Itzuli ttipia

EZPELETA



Herriaren itzulia egiten duen ibilaldi biziki atsegina, ondareko elementu ederretaz gozatzeko. Horrez gain, oihanbide batetik pasatuz mendi gaintara joan daiteke, ibilaldiak paisaia miresgarriak eskaintzen dituelarik. Etxalde batzuetatik iragan pasabideak Ezpeletako biperra edo ardi gasna ekoizleari zuzenki erosteko parada emaiten du ere bai.

Piments séchant sur façade

Abiatzeko bidea:


Merkatu plaza, herri barnetik eta aparkaleku handi batetik hurbil, Doxpi jatetxearen parean.

Merkatu plazatik **D** 625909 - 4799691, jauregia eta frontoiaren aitzinetik pasatu. Eskailerak hartu ezkerrean. Latsagiaren heinean den zubia zeharkatu. Bidearen puntan, ezkerrean hartu. Bidegurutzean, eskuinera hartu, 300 metroz igo eta bide mundrunatua utzi Haitzaga auzoa zeharkatzen duen baserri-bidea **1** 626228 - 4800152 hartzeko eskuinaldean. Xendraren puntan, ezkerrean hartu eta 160 metro urrunago, eskuinean den baserri-bidea hartu **2** 626661 - 4800303 beste bide batera iristeko. Bide mundrunatua hartu 300 metroz, eskuinera hartu **3** 626145 - 4800254 eta Latxa errekaraino **4** 625551 - 4801197 balizak segitu. Zubia pasatu eta gero, ezkerrean hartu, eta beste zubia baino lehen eskuinera **5** 625566 - 4800879. Baserri baten aitzinetik pasatu. Baserrialdera igaiten den bide bat hartzen du ibilaldiak. Hesiak gainditu ibiltarientzat ezarriak diren zurubien bidez.

0.25
0.43

1.00 Zapataindegia baserrian **6** 625170 - 4800542, noizbehinka lohitsuak izan daitekeen bide ttipia hartu bide mundrunatura. Bidea zeharkatu, eta hartu pentze batetik jaisten den pareko bide zaharra **7** 624683 - 4800542. Behereraino helduz, hesiak eta erreka zeharkatu. Gorago, oihanen murgiltzen den bide zabal bat **8** 624454 - 4800254 aurkitu. Haranttoan segitzen du bideak, erreken freskotasunean. Erreka ibitik iragan eta ezkerrealdetik segitu Galanborda baserriraino **9** 625015 - 4799770. Herrira itzuli zubi erromatarretik pasatuz.

1.20
1.35



©IGN

D Ezpeleta
Merkatu plaza

GPS : 625909 - 4799691

1.35 oren

Seinaletika

D -tik **9** -rat

7 km

+158 m
-158 m

eguraldi euritsuetan saiheksi:
pasabide lohitsuak

Huts egin behar ez dena

- 17. mendeko eliza
- Jauregi feudala
- Pottoka Feria, urtarreleko azken asteazkenean
- Biperraren Besta, urriko azken igandean
- Biper eta gasna ekoizleak

EZPELETAKO BIPERRA

Amerika Latinoko landare horren haziak hautatuak eta Ezpeletan landatuak izan ziren 1650ean. Hortik GORRIA landare-barietatea sortu zen.

2000ko ekainaren 1etik AOC eta 2000ko agorriaren 22tik AOP labelizatua, Ezpeletako Biperra da bere izendapena. Bere ekoizpen eremua 10 herritara hedatzen da: Ainhoa, Kanbo, Ezpeleta, Haltsu, Itsasu, Jatsu, Larresora, Senpere, Zuraide, Uztaritze. Sokan edo errautsan atxeman daiteke eta janaria biziagotzen du. Pure, kontserba, oliba olio, jela eta ozpinean ere merkaturatzen da. Beste elikagai horietan

ere atxemaiten da Ezpeletako biperra: gatza, pateak, gibel gizona, txokolatea, mustarda..

Biperraren Besta urte guziz ospatzen da, urriko azken aste-buruan.

Xehetasun gehiagorentzat:



Ezpeletako Turismo Bulegoa
Ezpeletako Baroien Jauregia – 64250 Ezpeleta - Tel : 05.59.93.95.02
Mail : espelette.tourisme@wanadoo.fr - Web : www.espelette.fr



« Guides randos 64 » zerrenda osoa: www.rando64.fr

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!

ZUEN IBILALDIA ONGI HAUTATU

Maila eta seinaletikak



Desmaila: ibilaldi bakoitzarentzat, igaite guziak kalkulatuak dira.



Iraupena: ibilaldi bakoitzaren iraupena adierazgarri gisa erabiltzen da. Ibilaldiaren luzetasuna, desmaila eta menturazko zailtasunen arabera neurtzen da.



Ibilaldiak

Ibilaldiak zailtasunen arabera sailkatuak dira, eta gida orri bakoitzean koloreen bidez desberdinak dira.

Ibilaldien FF-ren gomendioak segitzen ditugu.

▶ 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Idealki familiarekin egiteko, ongi markatuak diren bideetan.

▶ 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Ibiltari ohituentzat. Batzuetan desmailak edota guneko kiroitsuak.

▶ 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Familiarekin egin daiteke. Bideetatik, batzuetan pasabide zailagoak.

▶ 2 oren baino gehiagoko ibilaldia
Ibiltari esperientziadun eta kiroitsuentzat. Ibilaldi luze edota zailak (desmaila, pasabide gogorak).

Balizak segitu bide onean egoteko

Xendren balizak	Herri eta PR®-en xendrak	GRP®	GR®	VTT	Zaldiketa
Norabide ona					
Ezkerre hartu					
Eskuinera hartu					
Norabide txarra					

GRP®, GR® eta PR® Ibilaldien Frantses Federazioak erregistratu markak dira.

Ibilaldi batzu kalitate eskakizunen arabera hautatu ditu Ibilaldien Frantses Federazioak, PR® labelaren pean.



Bidezidor seinaleak

Bideen GPS helbideak

Erreferentziako neurria:
WGS 84 - UTM 30T
Ibilbideen GPS bideak
telekargatu:
www.rando64.fr

GOMENDIO BALIAGARRIAK

▶ Meteo 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo www.meteofrance.com.

Errobitik euskal itsasbazterrerako bideetan zehar ibiltzeak errespetuzko jarrera bat eskatzen du natura eta lurralde horiek biziarazten dituzten gizon eta emazteei begira. Arau batzu errespetatu behar dira.

Natura zaindu

▶ Zuen hondarkinak atxikitzeke zaku bat hartu ▶ Fauna eta flora errespetatu ▶ Balizak dituzten xendretan egon

Zuen burua babestu

▶ Material egokirik gabe ez joan
▶ Bakarrik joaiteak arriskuak ditu
▶ Erreketatik datorren ura ez edan
▶ Meteo so egin

▶ Europako urgentziako deia 112

— *Jarduerak eta jendeak errespetatu* —
▶ Hesiak berriz hetsi
▶ Xakurrarekin joaitea ez da komeni. Kasu guzietan, sokatik atxiki.
▶ Suak debekatuak dira
▶ Ibilaldien bazterretan diren jabego pribatuak errespetatu

Kasu !

Usa ehiza garaian (urritik azarorart), ehizaldietan (urte osoan zehar) eta lurra erretzean (abendutik martxorart), ibilaldi batzu saihestu behar dira. Turismo bulegoetan xehetasunak galdegin.

Egiteko gomendioak:



Gure xendrei buruzko iritziak

Eco-veille®

Proposatzen dizkizuegun ibilaldiak arreta handiz hautatuak izan dira. Bideei dagokienez, zuen iritzi eta oharrak ongi etorriak dira atxikitzea edo mantentzea ahalbidetzeko. Zuen iritziak emaitza gonbidatzen zaituztegu Errobi Herri Elkargora deituz, 05 59 93 65 94.

Ecoveille® orria telekargatzen ahal duzue: www.rando64.com/ecoveille

Ecoveille®.behaketa orri bat ere eskuratzen ahalko duzue.

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!